

PRENTSA-TXOSTENA

BILBAO EUROPEAN ZINEMA SCHOOLS FEST

2018ko azaroaren 26tik 30era, 6 euskal, 3 estatuko eta 5 europar zinema eskolek guztira 35 karrera amaierako-lan erakutsi dituzte Bilboko Europar Zinema Eskolen Zinemaldian, Bilbao European Schools Fest. Proiekzioak Arte Ederretako auditorioan eta Bilborock aretoan egin dira, eta ikus-entzunezko lanak lehiatu dira sari bat lortzearren zinemaldiko lau sailetan: animazioa, dokumentala, fikzioa eta esperimentalak.

Zinemaldiko bost egunetan zehar zinemagile nabariak eta interdiziplinazko artistek emandako masterclass interesgarriak egon dira, haien artean Fermín Muguruza, Oliver Laxe, José Luis Guerín edo Paul Urkijo. Mintegi hauen helburua errealizazio zinematografikoekin lotutako arlo desberdinetan ikuspegi ezberdinetatik sakontzea izan da, eta zinema, ikus-entzunezko, arte ederretako eta arte eszeniko eskolen ikasle eta interesatutako jendearentzat zuzenduta egon dira.

Zinema Eskolen Topaketa

Zinemaldiaren helburu nagusia erakusleihen eta ikus-entzunezko panoramaren talentu gazteen ekoizpenetarako elkargunea izatea da. Hau jarraituz, zinemaldiak zinema eskoletatik eta telebistatik datozen lanak ikusteko aukera eskaini du. Europatik, Pragako Arte Eszenikoetako Akademia, Alemaniako Filmakademie, Italiako Centro Sperimentale di Cinetografia, Frantziako Louis Lumière eta Poloniar zinema, telebista eta antzerki Eskola Nazionala zinemaldian izan dira.

Estatuko eskolen artean, zinemaldiak ECIB, Escola di Cinema de Barcelona; ESCAC, Escola Superior de Cinema i Audiovisual de Catalunya eta ECAM, Madrilgo Zinematografia eta IkusEntzunezko Eskola hartu ditu.

Euskal ordezkariak 16 laburmetrai eskaini dituzten UPV-EHUren Komunikazio eta Arte Ederretako fakultate, Digipen, Gasteizko Arte- Eta Lanbide-Eskola, Mondragon Unibertsitatea eta Gasteizko Mendizabala Trebakuntza-Zentro Profesionalaren eskutik izan da.

Foroa: “Europako zinema eta ikus-entzunezko sektorearen etorkizuna”

Azaroaren 28an ikus-entzunezko sektorean aktibitate profesionala garatu nahi duten gazte talentuentzako zuzendutako foroa ospatu izan da, non bere jakin-minei erantzuna aurkitu zezaketen. Foroak sektorea laguntzeko europar programetako arduradunen eta ikus-entzunezko industriaren esparru desberdinetako profesionalen parte-hartzea izan du.

Foroaren parte-hartzaileek aholkularitza bere etorkizuneko proiektuentzat eta haien erlazioa europar 2021/2027 laguntzekin eskatu zezaketen.

Foroan, Pablo Pérez de Lema Saenz de Viguera, 'Euroimages' programaren Espainiako arduraduna; Ainhoa González, Euskadiko Europa Kreatiboa bulegoaren arduraduna; Marian Fernández, IBAIAren zuzendaria; Carlos Juarez, EPEAPV Euskal Produktoreen Elkartearen zuzendaria; Alexia Muiños, EWAren presidenteordea; Jara Ayúcar, Zineuskadiko Komunikazio arduraduna eta Kristina Zorita, Hemen-ekoa, parte hartu dute.

Epaimahaia eta lan satiruak

Industriaren lau profesionalek osatutako epaimahaia zinemaldiak jasotzen dituen 35 ikus-entzunezko proposamenen kalitatea ebaluatzeko arduradun izan dira: Amara Mosteiro, gidoilaria eta zine zuzendaria; Jara Ayúcar, Zineuskadiko Komunikazio arduraduna; Esperanza Luffiego, Zinemaldiako Industria departamentuaren koarduraduna eta Jessica Dominguez, UNESCO Etxearen Kultura Garapenerako programaren arduraduna.

2018an zinemaldiaren lau kategorietako lan sarituak izan dira:

Esperimentala

ELLAS: Aitziber Escudero eta Oihane Amurrioren filma, EHUko Arte Ederren Fakultatea (Euskadi)

Fikzioa

BREATHE: Matthias Kreter eta Max Breuer-en filma, Baden-Württemberg-eko Zinema Akademia (Alemania)

Dokumentala

ESCULPIENDO EN LA MEMORIA: Rubén Secaren filma, Bartzelonako Zinema Eskola - ECIB, (Katalunia)

Animazioa

BLESS YOU: Paulina Ziolkowskaren filma, Poloniar Telebista eta Antzerki-Eskola Nazionala (Polonia)

Informazio gehiagorako:

Argazki-galeria: [Flickr Begira Elkarte](#)